# I. MAILAKO HERRI KIROL ENTRENATZAILE IZATEKO IKASTARO OFIZIALA (2. PROMOZIOA)






**ANTOLATZAILEAK:**

EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAKUNDEA

Kirol eskola
Kiroletik hazi eta ikasi

EKFB
Euskal Kirol Federazioen Batasuna

**BULTZATZAILEA:**

BIZKAIKO EUSKAL JOKO ETA KIROL FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VIZCAINA DE JUEGOS Y DEPORTES VASCOS

## 1. LEKUA, DATA eta ORDUTEGIAK

Kurtsoa, Euskadiko Herri Kirol Federaziotik sustatua dago.

Sarbide proba, Bloke espezifikoa eta praktikaldiak, Euskadiko Herri Kirol Federazioarengandik antolatuta/irakatsita/tutoretzapean dago.

| | ANTOLATU/IRAKATSI | LEKUA/SISTEMA | DATAK | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|---|
| **SARBIDE FROGA** | Euskadiko Herri Kirol Federazioa | Aurrez aurrekoa-tokia zehazteke | 2023/09/23 | Zehazteke |
| **BLOKE KOMUNA** | EKFB | On-line (Azterketa presentziala, 2024/3/16 lehen deialdia eta 2024/4/13 bigarren deialdia. Tokia konfirmatzeko) | 2024/1/15etik–2024/4/13era | ONLINE |
| **BLOKE ESPEZIFIKOA** | Euskadiko Herri Kirol Federazioa | On-line | 2023/10/2-tik aurrera | ONLINE |
| **PRAKTIKAK** | Euskadiko Herri Kirol Federazioa | Praktikaldi Presentziala<br>Lan baten bitartez<br>Baliozkotua | Bloke Espezifikoa gainditu ondoren | |

## 2. FORMAKUNTZAREN HELBURUA

I mailako kurtsoa, kirol hastapenean jardun nahi duten teknikariei zuzenduta dago. Maila honetan jasoko diren konpetentziak ondorengoak dira:

- Kirol hastapeneko zehaztasuna, dinamizazioa eta heziketa.
- Maila honetako ekitaldi eta txapelketetan, kirolariei, antolakuntza, akonpainamendu eta tutoretza helarazi.

## 3. EGITURA eta EZAUGARRIAK

Kurtsoa 3 bloketan egituratuta dago: Bloke komuna. Bloke espezifikoa eta praktikak

| BLOKE KOMUNA | |
|---|---|
| **Moduluak eta arloak** | **Orduak on-line** |
| Kirol Jokabideen oinarriak | 20 |
| Lehen Sorospen ikastaroa | 30 |
| Kirol Jarduera egokitua | 5 |
| Kirol antolakuntza | 5 |
| **Guztira** | **60** |

| BLOKE ESPEZIFIKOA | | |
|---|---|---|
| **IRAKASGAIA** | **ORDU KOPURUA** | |
| Herri Kiroletako diziplinen historia | 15 | On-line |
| Herri kiroletako diziplinen arautegia | 15 | On-line |
| Herri Kiroletako diziplinen oinarrizko entrenamendua | 10 | On-line |
| Herri Kirolen metodología eta didaktika eskola kirola etapan | 15 | On-line |
| Herri Kirol eskola | 10 | On-line |

| PRAKTIKALDIAK | Praktikaldi presentziala |
|---|---|
| | Lan baten bitartez |
| | Baliozkotua |
| **ORDUAK** | 150 |

Formakuntzaren ezaugarriak:

- Praktikaldi garaia:
  - Federakundeko ekintza propioetan edo federakundeak zilegitutako kirol elkarteetan egingo dira praktikaldiak.
  - Ikasleak bloke espezifikoa bere osotasunean gainditu eta bloke komuna bukatuta  edo izena emanda daukanean hasi ahalko da praktikak egiten.
  - Bloke espezifikoaren emaitzak argitaratzen direnetik, 12 hilabeteko epea egongo da praktika garaia bukatua izateko.

## 4. SARBIDE BALDINTZAK

- Gutxienez, 16 urte izatea.
- Sarbide proba gainditzea gainditzea.
- Gurasoen baimena adingabeentzat.
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) edo baliokidea izan daitekeen titulazioa akademikoa.

| TITULAZIO BALIOKIDEEN TAULA | |
|---|---|
| **DBH** | **BATXILERGOA** |
| a) Teknikari/laguntzaile titulua.<br>b) Teknikari titulua.<br>c) Batxilergo Bateratu Balionaiztunaren bigarren maila gainditzea (BBB) edo, halakorik ezean, gehienez lehenengo bi ikasturteetan gainditu gabeko bi ikasgai izatea. | a)Batxilergo esperimentaleko edozein modalitatetako bigarren maila gainditzea.<br>b)Teknikari espezialista edo Goi mailako teknikari titulua.<br>c)Industria maisutza |

| SARBIDE PROBAK<br>(Euskal Pilotako I. maila, pelota frontoi laburra (36 metro, frontoi luzea 54 metro eta trinkete frogak) | | |
|---|---|---|
| **DIZIPLINA** | **PROBAREN GARAPENA** | **EBALUAZIO IRIZPIDEAK** |
| **1. Froga**<br><br>**(Jaurtiketa eta itzultzea menderatzea)** | Probaren garapena: Izangaiak pilota frontisaren kontra jaurti eta posizio beretik, berak jo beharko du, pilota edozein beso erabiliz. Izangaiak erabiliko duen tresna aukeratuko du: Eskuarekin (pilota biguna) edo frontoiko beste espezialitate ofizialetan erabiltzen diren tresnekin (36 m), (54 m) eta trinketea: Paleta larruz, pala motza, zesta-punta, xarea edo paleta gomaz | **-**Pilotaren lehen kolpea edo jaurtiketa frontisaren aurka egin du, (36 eta 54 m) -ko frontoiko 4. koadrotik, eta trinketeko (15 m) marratik. **herramintako espezialitatean**.<br><br>**-**Pilotaren lehen kolpea edo jaurtiketa frontisaren aurka egin du: **eskuz**, frontoiko 3. koadrotik (36 m), eta trinketeko (10 m) marratik.<br><br>**-**Bigarren kolpea lehenengo kolpea egin den koadro beretik egin da.<br><br>-Pilota frontisetik bueltan datorrenean, eman beharreko kolpearen lehen botea **Erreminta-espezialitateetarako**, 4. eta 7. koadroen artean egitea lortu du. (36 eta 54 m), eta Trinketean (20 m) lerroaren eta errebotearen artean egitea lortu du.<br><br>-Pilota frontisetik bueltan datorrenean, eman beharreko kolpearen lehen **botea eskuzko espezialitateetarako**<br>(36 m) -ko frontoian 3. eta 6. koadroen artean egitea lortu du, ,<br>eta trinketean (10 m eta 20 m) arteko lerroen artean egitea lortu du.<br><br>**-**Pilotak ez du ezkerreko pareta ukitu. Trinketean bakarrik ikutu dezake.<br><br>**-** Espezialitatearen araudia bete da kolpe guztietan.<br><br>**-**Hautatutako espezialitatea ebaluatzeko irizpide guztiak bete dira |

| | | |
|---|---|---|
| | | gutxienez hiru aldiz eta gehienez, gehienez zortzi aldiz.<br><br>Frontoiaren irudikapen grafikoa (36 m eta 54 m), erreminta-espezialitateak:<br><br> |
| **2. Froga**<br><br>**(Piloteoa menderatzea)** | Probaren garapena: Piloteoa frontisaren aurka, edozein beso erabiliz. Izangaiak erabiliko duen tresna aukeratuko du: Eskuarekin (pilota biguna) edo frontoiko espezialitate ofizialetan erabiltzen diren tresnak (36 m), (54 m) eta trinketa: paleta larruz, pala motza, zesta-punta, xarea edo paleta gomaz. | **-**Piloteoa frontisaren aurka egin du, herramintako espezialitateetan,<br>(36 m) -ko frontoian 3. koadroaren, atzetik, (54 m) -ko frontoian 4. Koadroaren aztetik eta Trinketean (15 m) lerroaren atzetik.<br><br>**-eskuko espezialitateetan,** piloteoa frontisaren aurka egin du,<br>2. koadroaren atzetik (36 m frontoian) eta trinketean (10 m) atzetik.<br><br>**-**Gutxienez ondoz ondoko sei itzulketa egin dira frontisaren aurka.<br><br>-Hautatutako espezialitatea ebaluatzeko irizpide guztiak bete dira<br>gutxienez hiru aldiz eta gehienez, zortzi aldiz.<br><br>Frontoiaren irudikapen grafikoa (36 m eta 54 m), erreminta-espezialitateak:<br><br> |

5. **KONPENTSAZIO-BALIOZKOTUA JASOTAKO MERITU eta BESTE FORMAKUNTZA OFIZIALENGANDIK.**
    - Pertsona insteresadunak, 15 eguneko aurrerapenarekin aurkeztu beharko du dokumentazioa eta dagokion eskakizuna
        - **Bloke Komuna**:
        - Jarduera fisikoen eta kirolaren arloko ikasketa ofizialak egiaztatzeagatik:
        - Jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin zerikusirik ez duten eta gai bera eta eskola-karga berdina edo handiagoa duten beste irakaskuntza ofizial batzuk egiaztatzeagatik.
        - **Bloke espezifikoa:**
        - Beste ikasketa ofizial batzuetan kirol-modalitate/-espezialitate horretako berariazko irakaskuntzak egiaztatzeagatik, baldin eta ikasketa horiek bat badatoz eta irakasgai ordu karga bera edo handiagoa badute**.**
        - 971/2007 Errege Dekretuak ezartzen duen goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria izateagatik, bloke espezifikoko arloen konpentsazioa lortu ahal izango da, baldin eta horien edukiak teknika, taktika eta erregelamenduaren alderdiei buruzkoak badira.
    - Kirol-modalitate honetako edo beste bateko bloke komuna gainditu duten pertsonak (Bloke komuna LOE) edo bloke espezifikoko zenbait arlo aurreko ikasturteetan, ez dute inolako baliozkotzerik egin behar; dagokion ziurtagiri ofizialren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute federazioan.

6. **PRAKTIKALDIEN ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, JUSTIFIKATUTAKO ESPERIENTZIAGATIK.**
    - Teknikari edo entrenatzaile gisa lan edo kirol esperientzia jakin bat egiaztatzen duten ikasleek praktika ziurtagiria lortu ahal izango dute, dagokion praktikaldia egin beharrik gabe**.**
    - Aukera hori eskuratu ahal izateko aukerak:
        - Lan-esperientzia edo kirol esperientzia kirol modalitate/espezialitate berean eta prestakuntza maila bereko jardueretan

- Ezarritako ordu kopuruaren bikoitza baino gehiagoko esperientzia.
  - I. mailarako, eskola-kiroleko jardueretan prestakuntza edo lan  edo kirol esperientzia egiaztatzen bada: 150 ordu
- Esperientzia osoa, bloke espezifikoa hasi aurretik.

- Lan edo kirol esperientzia honela egiaztatu beharko da:
  - Lan esperientzia:
    - Besteren konturako langileak: enpresaren ziurtagiria, kontratuaren iraupena, egindako jarduera eta lan egindako denbora jasotzen dituena.
    - Norberaren konturako langileak: zergapekoen erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutela egiaztatzen duen ziurtagiria, bai eta jarduera adierazgarrienen interesdunaren aitorpena ere.

  - Kirol Esperientzia:

    - Kirol federatua: Euskadiko dagokion federazioaren ziurtagiria, garatutako jarduera eta jarduera egin den aldia jasotzen dituena.
    - Eskola-kirola: dagokion foru-aldundiaren ziurtagiria, garatutako jarduera eta jarduera egin den aldia jasotzen dituena.
- Interesa duen ikasleak eskabidea aurkeztu beharko dio federazioari praktikaldia hasi aurretik.

**7. HIZKUNTZA**

- Euskara

## 8. DIPLOMA

- Prestakuntza osoa gainditzen duten pertsonek diploma ofizial hau jasoko dute Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Euskal Eskolak igorrita..
  - I mailako Herri Kirol entrenatzailea.

- Herri Kirol modalitateko/espezialitateko irakaskuntzak dagokion dekretuaren bidez hezkuntza-sistemara igaro ondoren, ikasleek diplomaren baliokide akademikoa lortu ahal izango dute, kasu honetan, Herri Kiroletako Erdi Mailako Hasierako Zikloaren Ziurtagiria.

## 9. IZEN-EMATEAK

Interesatuek irailaren 15a baino lehen eman beharko dute izena ekfb@euskalkirola.eus helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa (Dokumentazioa posta elektronikoz aurreratzea. Jatorrizkoak sarrera-proban jasoko dira. Proba hori egin behar ez bada, postaz bidali Euskal Kirol Federazioen Batasunera 2023/09/15 baino lehen):

1. NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.

2. Beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa edo, halakorik ezean, ordezko heldutasun-proba gainditzea. Baimendutako dokumentuak:

* Titulu akademikoaren edo tasak ordaindu izanaren frogagiriaren fotokopia konpultsatua.

* Hezkuntza Ordezkaritzek emandako ordezko titulazioaren ziurtagiriaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.

* Ziurtagiri/espediente akademiko ofizialaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua (ikasketak egin ziren ikastetxean bertan eskatu beharrekoa). Ziurtagiri ofizialak Eusko Jaurlaritzaren logoa du).

* Kalifikazio-liburuaren fotokopia konpultsatua (eskola-liburua).

3. Inskripzio-orria, beteta eta sinatuta (VI. eranskina)

4. Transferentziaren ordainketa (ordaindu beharreko kontu-zenbakia: ES68 0138 0038 5301 1370 2724). Adierazi kontzeptuan Izen-abizenak.

- Plaza kopurua: 30 ikasle.
- Prezioa:

  -Bloke Komuna: 80€

  -Bloke Espezifikoa: 340€

  **Ikastaroa guztira: 420€**

*** Matrikulatzeko oharrak:**

- Ikasleak osorik matrikulatu ahal izango dira, blokeka edo arloka (betiere sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen badituzte).
- Gogoratu behar da sarbide-probak gehienez 18 hilabeteko balioa duela, eta, beraz, epe horren ondorengo arlo eta/edo bloke bateko edozein matrikulaziok sarbide-proba berriz egitea eta gainditzea eskatuko duela.

**IZENA EMATEKO ORRIA:**

**Datu pertsonalak:**

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |
| NAN zk. | |
| Jaioteguna eta lekua | |
| Helbidea | |
| Posta kodea eta herria | |
| Telefono partikularra | |
| Telefono mugikorra | |
| Helbide elektronikoa | |

**Datu akademikoak:**

| | |
|---|---|
| Titulazio akademikoa | |

| | |
|---|---|
| I. MAILAKO BLOKE KOMUNEAN matrikulatu | BAI □ EZ □ |

Gainditu gabeko irakasgaietan matrikulatzen bazara, adieraz itzazu ondoan, baita irakasgaiok zein ikastarotatik datozen adierazteko datuak ere:

| Irakasgaia | Ikastaroa (antolatzailea, lekua eta urtea) |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

| | |
|---|---|
| Irakasgairen bat, praktikaldiren bat edo bloke komun osoa baliozkotzea eskatzen duzu?<br><br>Zein/Zeintzuk?: ……<br><br>Erantsi dokumentazioa | BAI □ EZ □ |

| | |
|---|---|
| PRAKTIKALDIAN matrikulatu | BAI □ EZ □ |

SINADURA: ____________________________________________________________

“Euskal Kirol Federazioen Batasunean, ematen diguzun informazioa tratatu egiten dugu, eskatutako zerbitzua emateko eta fakturazioa egiteko. Emandako datuak merkataritza/prestakuntza harremanak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan gordeko dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra dagoen kasuetan izan ezik. Euskal Kirol Federazioen Batasunean zure datu pertsonalak tratatzen ari garen baieztatzeko eskubidea daukazu; beraz, eskubidea daukazu zure datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko eta datuak jada beharrezkoak ez direnean ezabatzea eskatzeko.

Halaber, baimena eskatzen dizut eskatutakoarekin lotutako produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko eta bezero gisa fidelizatzeko.

BAI □

EZ □